



AURRETIK GALDETZEKO ESKUBIDEA HONDURASEN

Berriki egindako txostenean, Honduras lurra eta ingurumena babesteko lekuri arriskutsuena dela zioen Global Witness GKEk¹. Bere ikerketaren arabera, 2009ko estatu-kolpetik 2017ko urtarrilera arte aktibisten 123 hilketa eta hainbat mehatxu, eraso eta ausazko kartzelaratzeko egiaztatu dira. Pertsona arruntak dira, askotan indigenak, landa-erkidegokoak, historikoki Estatuak baztertu dituenak. Horrez gain, enpresa handiek oso gustukoak dituzten lurretan bizi dira, aberastasun naturalengatik eta han dauden lehengaiengatik.

Azken hamarkadetan hainbat proiektu eta megaproiektu esleitu dira Hondurasen kontrolrik gabe, elite politiko eta ekonomikoaren arteko ustelkeria eta babesarengatik batik bat. Oso gutxitan ematen zaie erkidegoei informazio egokia, eta ez zaie kontsultatzen bizi diren lurraldeen erabileraren gainean. Horrek eztabaida handiak sortzen ditu, aktibisten bizitza arriskuan jartzen du eta inbertsioak berak ere arriskuan jar ditzake.



Herri indigenek aurretik libreki eta informazioa emanaz kontsultatzeko duten eskubidea 169 Konbentzioan jasotzen da, Lanaren Nazioarteko Erakundeak 1989. urtean onartu zuena. Gaur egun, 22 herrialdek berretsi dute, horien artean Hondurasek, 1995. urtean sinatu zuena. Hala ere, Hondurasen kasuan, gobernuaren borondate politiko faltaren ondorioz, behin eta berriro ez da bete aurretik kontsultatzeko eskubidea. Horrek, hainbat ingurumen-gatazka eragin ditu.

Zer ezartzen du 169 hitzarmenak? Politika orokorrean, aplikatzeko irizpide batzuk eskaintzen ditu, "herri indigena" gisa nor har daitezkeen ezartzeko (1. art.), eta gobernuak, eragindako erkidegoek parte hartuz, kontsulta koordinatu behar dutela ezartzen du (2. art.). Horrela, edozein hertsadura saihesten da eta funtsezko eskubideak errespetatzen dira (3. eta 4. art.).

Prozedurazko alderdiei buruz 5., 6. eta 7. artikulak aritzen dira, hala nola herri indigenek bere erakunde tradizionalen bidez (komunak, batzordeak, buruzagiak eta abar) kontsultatzeko duten eskubidea; proiektuaren eraginei buruzko eragin-azterketak egitea; eta bizi diren lurraldeen ingurumena babestea eta zaintzea.

Bestalde, 8., 9. eta 10. artikuluek herri indigenen eta tribuen inguruabar bereziak aitortzen dituzte, eta haien kultura tradizionalak errespetatu behar direla ezartzen da, betiere sistema juridiko nazionalarekin bateragarriak badira. Horrez gain, beste lau atal ere barne hartzen ditu hitzarmenak: herri indigenen lurraldeen gaineko eskubidea; enplegua eta lanbide-prestakuntza; segurtasuna eta osasuna eta hezkuntza.

Hondurasko gaur egungo gobernuak aurretiko kontsultari buruzko Lege bat izapidetzen ari da 169 konbentzioa aplikatu dadin. Erakunde indigenek uste dute lege horrek enpresei lurraldean sartzeko aukera emango diela, aurretik kontsultatzeko eskubidearen okerreko interpretazioa eginez, beraz ez dute ekimen horren alde egin.

¹ <https://www.globalwitness.org/en/campaigns/environmental-activists/honduras-el-pa%C3%ADs-m%C3%A1s-peligroso-del-mundo-para-el-activismo-ambiental/> [azken kontsulta: 2018/10/10]

JARDUERA PROPOSAMENA

LEKUZ ERAMANGO ZAITUZTE: ZER EGINGO ZENUKE ZUK HAIEN LEKUAN?

Helburua: Herri indigenek aurretik librekin eta informazioa emanaz kontsultatzeko duten eskubidea ezagutzea, eta ingurumen-gatazkek eragiten dituzten dinamiken berri izatea. Eremu publikoko erabakiek, eragindako pertsonen esandakoa kontuan hartzeak duen garrantziari buruz hausnarketa egitea.

Materialak: Internetarako sarbidea duen ordenagailua eta proiektagailua.

Iraupena: 1 ordu eta 45 minutu.

Garapena: Lehen zatia 30-40 min. Irakurri fitxa honen aurkezpena, eta imajinatu jakinarazpen hau zuen gelara heltzen dela:

Ikasle horiek,

Honen bidez jakinarazten dizuet, X01234 espedientearen arabera, ikastetxea dagoen lursaila Minerales Brillantes S.A. enpresari eman zaiola prospekzio-lanak egiteko.

Mineralak aurkitzen baditu eta ustiapen-fasera igarotzen bada, enpresak birkokapen plan bat ere jasotzen du. Baliabideak mugatuak direnez, banaketa hau egitea proposatzen dugu:

Taldeko pertsonen herena hemendik 27 km-ra dagoen beste leku batera eramango da, Hiri Gorri, patiorik eta edateko urik ez duen ikastetxe batera. Enpresak hitzematen du hilero ur-tanga bat eramango duela eta ikasle bakoitzari bost mila euro emango dizkiola kalte-ordain gisa.

Beste herena Hiri Zuri-n kokatuko da, hemendik 2 kilometrora, kanpoko patioa, kiroldegia eta wifi duen ikastetxe batean. Haiei 100 euroko kalte-ordaina emango zaie.

40 minutu dituzue bi taldeak osatzeko. Ez bazarete ados jartzen epe horretan, ez da egongo onurarik inorentzat, baina ikastetxea utzi beharko duzue.

Adeitasunez

Sin.: Meatzteen Ministerioa

Sin.: Minerales Brillantes SA

Zer atera da negoziazioetan?

Eskaintza onartu dute?

Nola sentitu dira?

Zer estrategia erabili du enpresak?

Nola erantzun dute?

Helburua da erabakitze-prozesuen eta aurretik libreki eta informazioa emanek kontsultatzeak duen garrantziaren inguruan gogoeta egitea. Herri indigenek egunero egin behar diete aurre horrelako egoerei. Kasu horietan, jakinarazpena berandu heltzen da, ezin dut ezer erabaki: aukera txar baten eta okerragoa den beste baten artean aukeratu behar dute. Enpresak, eragindako erkidegoekin bereiz negoziatzen du, banatzeko eta proiektua aurrera ateratzeko, onartzen dutenen laguntzari esker.

Lehen zatia 30-40 min. Baliabideen atalean iradokitzen ditugun bi bideoak jar ditzakezu. 169 konbentzioaren 1-8 artikulua irakurtzea ere eska dezakezu, herri indigenek aurretik libreki eta informazioa emanek kontsulta egiteko duten eskubidea ezagut dezaten. Ongi egongo litzateke saioa amaitzeko, negoziatzerako orduan, eragindako erkidegoen ikuspegitik, beraienez zer alderdi diren garrantzitsu identifikatzea (batasuna diskurtsoan, lerro gorriak finkatzea, ezetz esateko aukera, beste eragile batzuekin bat egitea, eta abar).

INFORMAZIOA HANDITZEKO BALIABIDEAK

▷ Bideoa “169 konbentzioa eta kontsulta: ohiko galderak”, OIT (2016), (6:22 min.)

<https://www.youtube.com/watch?v=HYvXbkGTi40>

▷ Bideoa “Honduras: herri indigenek 169 hitzarmenaren urratzea salatu dute” (2:08 min)

TeleSur https://www.youtube.com/watch?v=8_rHP5Wq2Yo



Web-orria OITren herri indigena eta tribalei buruzko 169 konbentzioa,

https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@ed_norm/@normes/documents/publication/wcms_1182.pdf



Bloga Organización Fraternal Negra Hondureña (OFRANEH), “Honduras: JOHren Gobernuak ezarri nahi duen kontsulta lege kaltegarria”

<https://ofraneh.wordpress.com/2018/05/24/honduras-nociva-version-de-ley-de-consulta-pretende-imponer-el-ejecutivo/>



ALBOAN

-en proiektu bat



lortzeagatik



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

Finantzatuta